

Kosmodisea 2008-2009 | Fono Planeta | DBH



Amy Cortabitarte (Elgoibar Ikastola)

Amy Cortabitartek (Elgoibar Ikastola) zuzenduriko ikasle-talde baten lana izan da DBH kategorian nabarmendu dena.

Irakasleak adierazi duenez, ikasleek oso pozik hartu dute berria. *“Oso gustura egin dute lan eta ondorengo probetan ere horrela jarraitzeko asmoa dute”*.

Amy Cortabitartek dio, bere proiektua egiterakoan, agian, zailena grabazioa perfektionatzea izan dela, *“ahotsak argi entzutea, atzeko musika baxuago jartzea, etab.”*.

- Orain arte, zer iruditu zaizue Kosmodisea edizio honetako gauzarik interesgarriena?
- *Interesgarriena planeta desberdinetan garatu beharreko lan desberdinak izan dira. Erabili behar diren aplikazioak dibertigarriak dira, eta horrek, ikasleak motibatzen ditu egin beharreko lanerako.*
- Korapilatsuena?
- *Ikasleentzat ez da alde zail edo korapilatsurik egon. Egia da planeta bakoitzaren hasiera dela zailena, baina behin hasita, dena ondo doa.*